

Altza

Salto eta dantza Jolastokietan

Larraitz Garmendia [Tel.: 943 39 12 67]

Datorren astean Jolastokietako jaiak hasiko dira. Hilaren 17ra arte jokoak, dantzaldiak eta era guztietako jarduerak egingo dira Altzako auzune horretan.

festok duela 14 urte egin ziren lehendabiziko aldiz. Antolatzaileak beti saiatzen dira jaiok iraileko lehen asteetan egiten, batez ere, bertako bizilagunek gogo handiz hartzen dituztelako, oportetatik bueltan. Jolastokietako festetan Altza, Larratxo eta Herrerako jendeak parte hartzen du. Jolastokietako bizilagunen parte hartzea ere handia da. Hori dela eta, aurtengo egitaraua aurreko urtetakoaren antzekoa da. Antolatzaileek kontuan hartu izan dituzte biztanleen iradokizunak. Esaterako, iaz Eskola dantza taldearen saioak izan zuen arrakasta ikusirik, aurtengo ere Jolastokietan izango ditugu Eskolako dantzariak.

Egitarauari dagokionez,



Hilaren 16an, larunbata, folklore jaialdia egingo da, Eskola taldearen eskutik

nabarmentzeko da igandean, hilak 17, egingo den kros herrikoa. Lasterketak guztira, zortzi kilometrotako ibilbidea du, eta bertan emakumezkoek zein gizonezkoek parte

hartzen dute. Korrikalariak Bertsolari Txirritatik abiatzen dira, eta Larratxora hurbildu ondoren, Altza pasealekutik igarotzen dira Jolastokietarainoko bidea hartze-

**Hilaren 17an,
herri krosa
egingo da**

ko. Gizonezkoek bi bira ematen dituzte. Emakumeek, aldiz, bakarra. Bestalde, sari banaketa berezia izaten da, auzotarren eta kanpotarren artean bereizketa egiten baita.

Haurrei eskainitako ekin-tzei dagokienez, urtero parte hartze garrantzitsua izaten da. Hala ere, antolatzaileen arabera, gero eta gehiago nabaritzen da auzoaren zahartze prozesua eta haurren jaiotze falta.

Haurrek izango dute zer gozatua datozen egunotan: malabarismo saioa, sardina jana, danborrada, buruhandiak eta erraldoiak eta abar luze bat.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi, hilaren 17an, kultur etxearen urtemuga ospatuko dela. Lerroetatik gure agurrik beroena auzotar guzti.

ERLOJU TAILERRA
BITXI TAILERRA
URRE ETA ZILARREZKO BAINUAK

SEIKO - LOTUS
FESTINA - CITIZEN
PULSAR - CASIO
SWATCH - FLIK-FLAK
CALYPSO

**ERLOJUTEGIA
BITXITEGIA**

MIKEL

Karkizano kalea 9, behea • Tel.: (943) 32 06 95 • Faxa: (943) 32 01 15 • GROS

SAGARDOTEGIA

.....

BEREZITASUNAK:

Albizzardereko babarrunak
Txuleta erreak
Jangela goxoa
Bakarkako txokoak
Sagardoa txotxean



ALBIZZUR

Matia Kalea, 52 Behea • Tel.: (943) 21 18 01 Donostia



Egitaraua

Astelehena 11

20.30 Jaiei hasiera emateko azken prestakizunak

Asteazkena 13

18.30 Mutikoen futbol txapelketa, Miguel Baztan IX. Memoriala

Osteguna 14

18.30 Antzerki saioa T de Ombligo taldearekin

18.35 Argazki lehiaketa. Gaia: jaiak

18.40 Saskibaloi saioak, hogeitun bitartekoentzat

21.00 Rock jaialdia: Demarras eta Korrobore

Ostirala 15

16.00 Graffiti saioa, Nerekaneko horman

18.00 Txotxongiloa: Kolorin eta

bere txotxongiloak

19.00 Jaien hasierako suzeria

19.15 Buruhandiak eta erraldoiak

Perez de Lazarraga dultzainariekin eta txistulariekin

20.00 Festetarako deia Los Pasai taldearekin

20.30 Dantzaldia Aguirre taldearekin

Larunbata 16, Haurren eguna

09.00 Diana Perez de Lazarraga dultzainariekin eta txistulariekin

09.05 Ping-pong txapelketa

09.35 Txinga lasterketa

10.00 Malabarismo saioa

10.30 Karate erakustaldia

11.00 Haur lasterketa

12.00 Haur danborrada Pasai taldearekin

13.00 Zurruta

16.00 Txapelketak

16.55 Ping-pong txapelketako finalak

18.00 Sari banaketa

18.30 Txokolate jana

19.00 Buruhandiak eta erraldoiak

20.00 Folklore jaialdia Eskola taldearen eskutik

22.00 Herri afaria

24.00 Dantzaldia Avenida taldearekin

03.00 Baratxuri zopa

Igandea 17

09.00 Diana Perez de Lazarraga dul-

tzainariekin eta txistulariekin

10.00 Toka txapelketa, gizezko zein emakumezkoentzat

10.00 Koadrilen arteko areto futbol txapelketa, finalak

10.05 Futbolin lehiaketa, hamasei urte gorakoentzat

10.30 Bote txapelketa

11.35 Jolastokietako kros herrikoia

11.55 Auzoko jubilatuentzako hamaiketako

12.00 Tortilla lehiaketa

13.00 Herri kirolak Titoren ardura-pean: aizkolariak eta harrijasotzaileak

13.30 Txinga eta zaku lasterketak

17.00 Dantza Smoke Screen taldearen eskutik

18.00 Elena Mendizabal herrerratarren kantaldia

19.00 Nafarroako folklorea

21.00 Zezensuzkoa

21.30 Jaien amaiera eta azken etxereroak



PERFUMERIA


QUKERA

OPARIAK

Matia 15 • ANTIGUA • ☎ (943) 21 69 62

ALKANDORAK

ARROPADENDA



Andia 1 ☎ (943) 42 03 49 DONOSTIA

PALMERA

Berezitasuna:
NARRASTIAK ETA
PERTSIAR KATUAK

Tel.: (943) 290968

Karmengo Ama kalea 14
(Izkina Iruresoro plazarekin)



www.asilah.com/palmera DONOSTIA

Kinkildegia

MERTZERIA

- KORTSETERIA: DIM, CHANTELE, SIMONE PERELE, SELMARK, LITTLE KISS
- PIJAMAK: MASANA, AMETLLER, NOCTURNO
- LENTZERIA: BALMORAL, VANIA
- GALTZERDIAK: DIM, SILCA, PLATINO
- BARRUKO ERROPA: AVET, PUNTO BLANCO, DIM, SET (GIZON ETA EMAKUMEENTZAT)

Tel.: 943 472328 • AMEZKETA PLAZA (AMARA BERRI)